Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko abenduaren 23a, astelehena — 246 — Lunes, a 23 de diciembre de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## BERASTEGIKO UDALA

*Iragarkia*

Arauak eskatzen duen jendaurreko argibide epea inolako erreklamaziorik aurkeztu gabe igarota, behin betiko onartutzat jotzen dira 2024ko urriaren 14ean egindako Udalbatzaren Osoko Bilkuran hartutako lehen erabakiak. Ondoren argitaratzen diren erabaki hauek zerga-agintaraudietan eta hauen eraskinetan hainbat aldaketari buruzkoak dira eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango dira indarrean.

*1.1. Ondasun higiezinei buruzko zerga-kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatuko dituen Ordenantza Fiskala.*

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Udal honek, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 14.3 artikuluak ematen dion zilegidura erabiliz, eta geroztik Araudiak izan dituen aldaketak kontuan izanik, ondorengo artikuluan ezarritako terminoetan finkatzen du Zerga honen karga tasa.

GRABAMEN TASA

*2. artikulua.*

1. Hiri ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren karga tasa eranskinean adierazten den ehuneko hainbestean geratuko da finkatua.

2. Landa ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren karga tasa eranskinean adierazten den ehuneko hainbestean geratuko da finkatua.

ZERGA OINARRIA ETA KUOTAK

*3. artikulua.*

1. Hiri Ondasunei aplikatutako Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren Zerga Oinarria ondasun horien balio katastrala izango da.

2. Landa Ondasunei aplikagarri den Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren Zerga Oinarria, erregelamenduz onartutako balio katastrala izango da.

3. Zerga honen zehaztapena aurreko apartatuetan adierazitako Zerga Oinarriari Ordenantza honetako 2. artikuluan ezarritako dagozkion grabamen tasak aplikatuz lortuko da.

* Hutsik dauden etxebizitzetarako errekargua

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 14 artikuluaren arabera, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzkoa, uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauko 1 artikuluak aldatua, ondorengo errekargua onartzen da:

Errekargua: ehuneko 50a OHZ.ren zenbateko garbiaren gain.

## AYUNTAMIENTO DE BERASTEGI

*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentaria sin que se haya presentado reclamación alguna, se han elevado a firmes y definitivos los acuerdos iniciales adoptados por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 14 de octubre del 2024, relativos a la aprobación de diversas modificaciones, en las ordenanzas fiscales y en sus anexos, que se publican a continuación, y que entrarán en vigor a partir del día 1 de enero del año 2025:

*1.1. Ordenanza Fiscal reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas del impuesto sobre bienes inmuebles.*

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*

Este Ayuntamiento, haciendo uso de la autorización que le confiere el artículo 14.3 de la Norma foral 12/1989 de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y considerando las modificaciones realizadas posteriormente en la Normativa, fija el tipo de gravamen de este Impuesto en los términos que se establecen en el artículo siguiente.

TIPO DE GRAVAMEN

*Artículo 2.*

1. El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a bienes de naturaleza urbana queda fijado en el tanto por cien que se indica en el anexo.

2. El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a bienes de naturaleza rústica queda fijado en el tanto por cien que se indica en el anexo.

BASE IMPONIBLE Y CUOTAS

*Artículo 3.*

1. La Base Imponible del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicada a los Bienes de naturaleza urbana estará constituida por su valor catastral.

2. La Base Imponible del Impuesto de Bienes Inmuebles aplicable a los Bienes de naturaleza rústica estará constituida por el valor catastral reglamentariamente aprobado.

3. La determinación de la cuota de este Impuesto se obtiene aplicando a las Bases Imponibles expresadas en los apartados anteriores los tipos de gravamen respectivos, fijados en el artículo 2 de esta Ordenanza.

* Recargo para viviendas desocupadas:

De conformidad con el artículo 14 de la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, modificado por el artículo 1 de la Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, se aprueba el siguiente recargo:

Recargo: 50 por 100 de la cuota líquida del IBI.

EK\CV GAO-I-2024-09109

a) Ohiko bizilekua ez delako errekargua duten bizileku erabilerako ondasun higiezinak.

1. Subjektu pasiboaren edo –alokatzearen edo erabilera lagatzearen bidez– hirugarrenen ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak, zerga ordenantza honetako eranskinean jasotako errekarguari lotuta egongo dira.

2. Bizileku erabilerarako ondasun higiezintzat joko dira, katastroan etxebizitza erabilerakotzat edo etxebizitza xedekotzat ageri diren lokalak. Etxebizitzari atxikitakoak sartuko dira, baldin erregistroko finka bakarra badira.

3. Errekarguaren subjektu pasibo izango dira zerga honen subjektu pasiboak.

4. Errekargua, errekargua aplikatzen zaion zerga sortzen den unean bertan sortuko da, eta kuotarekin batera galdatuko da.

b) Ohiko bizilekutzat jotzea.

1. Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat egiazko ohiko bizilekutzat joko da, baldin zerga sortzen den egunean udal honen biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

2. Udal erroldan jaso gabeko egiazko ohiko bizilekua egiaztatzeko, udalerrian eskumena duten lurralde Administrazioetako edozeinetan egindako zerga aitorpenak erabili ahalko dira. Zerga aitorpen horretan, ohiko bizilekutzat deklaratua agertu beharko da zerga honi lotutako bizilekua. Zerga aitorpenen arteko kontraesanik izanez gero, edo zerga aitorpenik egiteko betebeharrik ez bada, subjektu pasiboaren, errentariaren edo lagapen hartzailearen beste frogabide batzuk aurkezteko aukera izango da. Zerga aitorpenak eta bestelako frogabideak balioztatzeko, txosten idatzi arrazoitua egingo da, eta txosten horrek oinarrituko du eskumena duen udal organoak hartutako erabakia.

Egiazko ohiko etxebizitzatzat hartuko da, egiaztatzen bada ondasun higiezinaren 183 egun baino gehiagoko okupazioa urtean.

3. Bizileku erabilerako ondasun higiezienen titulartasuna Administrazio publiko batena bada, aski izango da Administrazio horrek aukeztutako deklarazioa, ondasun higiezinak egiaz bizilekutarako direla jasotzeko. Udalak, hala ere, Adminstrazio titularrari errekeritu ahalko dio egiazta dezala ondasun higiezin horiek bizilekuatarako direla.

c) Ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, subjektu pasiboa dela kausa errekargua aplikatzeari lotuta ez daudenak.

Ez zaie errekargu hau aplikatuko Udalaren, haren erakunde autonomoen, enpresa erakunde publikoen eta kapital osoa Udalarena duten merkataritza sozietateen jabetzako etxebizitzei.

d) Ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, xedea dela kausa errekargua aplikatzeari lotuta ez daudenak.

Egiazko ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira errekargu hau aplikatzetik, baldin inguruabar hauetakoren bat betetzen badute:

1. Zerga horretan hobariren bat gozatzen dutenak.

2. Ostatatze, ostatu, hostal jarduerei atxikitakoak

3. Bere helburuen artean ondasun higiezina errenta ematearena duen erakunde publiko baten esku jarritakoak.

4. Zahar etxeetan erroldatutako pertsonen titulartasunekoak diren etxebizitzak.

5. Arrazoizko baldintza ekonomikoetan alokatzea edo saltzea eragozten duten eraikuntza nahiz ekonomia inguruabarrak

a) Bienes inmuebles de uso residencial sujetos a recargo por no constituir residencia habitual.

1. Los bienes inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia habitual del sujeto pasivo o de terceros en virtud de arrendamiento o cesión de uso quedarán sujetos al recargo contemplado en el anexo de la presente Ordenanza fiscal.

2. Se entenderá por inmuebles de uso residencial los locales que estén recogidos como de uso o destino de vivienda en el Catastro. Se incluirán los anexos a la vivienda siempre que formen una finca registral única.

3. Serán sujetos pasivos del recargo los sujetos pasivos de este tributo.

4. El recargo se devengará en el mismo momento que el impuesto sobre el que se aplica y se exigirá conjuntamente con la cuota.

b) Presunción de residencia habitual.

1. Se presumirá la residencia habitual efectiva en un inmueble de uso residencial cuando a la fecha de devengo del impuesto conste en el padrón de habitantes de este Ayuntamiento inscripción que acredite la ocupación del inmueble por una o más personas.

2. La residencia habitual efectiva no inscrita en el padrón municipal podrá acreditarse mediante declaraciones tributarias efectuadas ante cualquiera de la Administraciones territoriales competentes en el término municipal. En estas declaraciones tributarias deberá constar declarada como vivienda habitual la sujeta a este impuesto. Las contradicciones entre declaraciones tributarias o la inexistencia de obligación de efectuarlas habilitarán para la presentación de otros medios de prueba por parte del sujeto pasivo, del arrendatario o cesionario. Tanto la valoración de las declaraciones tributarias como los medios de prueba distintos de las mismas serán objeto de informe escrito motivado que fundamentará la decisión que se adopte por el órgano municipal competente.

Se entenderá que existe residencia habitual efectiva, cuando quede acreditada una ocupación del bien inmueble por un periodo superior a 183 días al año.

3. Cuando la titularidad de los bienes inmuebles de uso residencial corresponda a una Administración pública será suficiente la declaración presentada por la misma para presumir el destino residencial efectivo de los inmuebles. El Ayuntamiento, no obstante, podrá requerir a la Administración titular para que acredite el destino residencial de aquellos.

c) Viviendas sin residencia habitual no sujetas a la aplicación del recargo por razón del sujeto pasivo.

No se aplicará el presente recargo a las viviendas propiedad del Ayuntamiento, de sus Organismos Autónomos, entidades públicas empresariales y sociedades mercantiles de capital íntegramente municipal.

d) Viviendas sin residencia habitual no sujetas a la aplicación del recargo por razón del objeto.

Estarán exentos de la aplicación de este recargo los bienes inmuebles de uso residencial sin residencia habitual efectiva, los bienes inmuebles en los que concurra alguna de las circunstancias siguientes:

1. Los que gocen de alguna bonificación tributaria en el impuesto.

2. Los afectos a actividades de alojamiento, pensiones, hostales etc.

3. Los puestos a disposición de alguna entidad pública que tenga entre sus fines la puesta en alquiler de los mismos.

4. Las viviendas cuya titularidad corresponda a personas empadronadas en Residencias de la Tercera edad.

5. Aquellos en los que concurran circunstancias de índole constructiva o económica que impidan su venta o alquiler en

EK\CV GAO-I-2024-09109

dituzten ondasun higiezinak. Inguruabar horiek balioztatzeko txostena, eskumena duen udal zerbitzu teknikoek egingo dute.

6. Modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretarako direnak.

7. Bizigune programara atxikiak egoteagatik hobaria dutenak.

8. Promotoreak saltzeko dituzten etxeentzat.

9. Herentziaz jasotzen diren etxebizitzak eragilea hiltzen denetik lehenengo bi urteetan.

10. Bizigune programara atxikiak egonda, momentuz alokatu gabe daudenak.

11. Alokatuta dauden etxebizitzak, beti ere dagokion alokairu kontratoaren bidez justifikatzen bada.

12. Jarduera ekonomikoetan erabiltzen direnak.

13. Antolamenduz kanpo daudenak, erortzeko zorian aitortuak edo hirigitza kudeaketara lotuak.

14. Hutsak dauden baserriak. Baserri hutsak dira landa lurzoruan dauden eraikinak, nekazaritzako ustiategia dutenak eta inor erroldatu gabe daudenak.

15. Batuta dauden etxebizitzak, nahiz eta jabetza erregistroan bi finka izan eta bi ordainagiri eduki.

16. Ondainagiri bakarrean ageri diren etxebizitzak erregistroan finka bakarra delako (jabetza bertikala).

17. Monumentu historikoa deklaratutako etxebizitzak.

18. Zaintza pertsonalak behar dituzten mendeko pertsonen jabetzako etxe bizitzak, baldin mendeko pertsona hori bera zaintzeaz arduratzen den familiarraren etxean bizi eta erroldatuta badago. Zaintza pertsonalen beharra mendekotasun-balorazio bidez frogatuko da. Salbuespen hau aplikatzeko beharrezkoa izango da utzi den etxe bizitza hori mendeko pertsonaren ohiko etxe bizitza izatea, familiarraren etxe bizitzara joan aurretik.

e) Errekargua aplikatzeko kudeaketa prozedura berezia.

Udalak, ofizioz, ohiko egoiliarrik inskribaturik ez duten bizileku erabilerako ondasun higiezinen titular izanik zerga honen subjektu pasibo direnen hasierako zerrenda egingo du.

Zerrenda horretan sartuta dauden subjektu pasibo guztiei behin-behinekoz kasuan kasu onartzen den errekarguari lotuta dauden bizileku erabilerako ondasun higiezinen titulartzat sartu dituztela jakinaraziko zaie. Horrela, subjektu pasiboek egoki deritzotena alegatu ahalko dute, behin betiko erabakitzearren ea ondasun higiezina zein egoeratan dagoen, egiazko bizilekutzat erabiltzeari edota errekargua ez aplikatzeko baldintzak betetzeari dagokionez.

Ondasunaren haserako araubidea erabakitzeko behin betiko ebazpenaren jakinarazpena, subjektu pasiboei banan-banan egingo zaie. Eta, egoki baldin bada, zergaren erroldan sartuko dituzte, errekarguak zergapetutako ondasunen baten titular diren subjektutzat.

Ondasun bat errekarguaren gai dela jotzen bada, hasiera batean subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, egoki deritzon alegazioak egin ditzan. Udalak alegazioak ikusita, errekargua aplikatzeari edo ez aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena emango du. Erabaki hori subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, legezko bide egokiak erabiliz.

condiciones económicas razonables. El informe de valoración de tales circunstancias se realizará por los servicios técnicos municipales competentes.

6. Los dedicados a actividades profesionales o comerciales de forma continuada.

7. Las viviendas que tengan concedida la bonificación por estar acogidas al programa Bizigune.

8. Las viviendas que los promotores tienen pendientes de venta.

9. Las viviendas adquiridas por herencia durante los dos primeros años desde el fallecimiento del causante.

10. Las viviendas que están dentro del programa Bizigune, pero que de momento no están alquiladas.

11. Las viviendas alquiladas, siempre que se justifique con el correspondiente contrato de arrendamiento.

12. Las afectas a actividades económicas.

13. Las viviendas que están fuera de ordenación, declaradas en ruina o sujetas a gestión urbanística.

14. Los caseríos que están vacíos. Se considera caserío vacïo los edificios ubicados en suelo rural, que tienen explotación agraria y en los que no haya nadie empadronado.

15. Las viviendas unidas que registralmente son dos fincas independientes y tienen dos recibos diferentes.

16. Las viviendas que están unidas en un único recibo por ser fincas registrales únicas. Propiedades verticales.

17. Viviendas declaradas monumento histórico.

18. Viviendas propiedad de personas dependientes que requieran cuidados personales y que se encuentren empadronadas y residan en el domicilio del familiar responsable de su cuidado. La necesidad de cuidados personales se acreditará mediante valoración de dependencia. Para la aplicación de esta exención será necesario que la vivienda abandonada sea la vivienda habitual de la persona dependiente, antes de acudir al domicilio familiar.

e) Procedimiento especial de gestión para la aplicación del recargo.

El Ayuntamiento elaborará de oficio una relación inicial de los sujetos pasivos por este impuesto titulares de bienes inmuebles de uso residencial en los que no conste inscrita persona alguna como residente habitual.

Se procederá a notificar a cada uno de los sujetos pasivos incluidos en la relación anterior su alta provisional como titulares de bienes de uso residencial sometidos al recargo que en su caso se apruebe, para que aleguen lo que estimen oportuno en orden a determinar definitivamente la situación del bien inmueble en cuanto a su uso residencial efectivo o la concurrencia de supuestos de no aplicación del recargo.

La notificación de la resolución definitiva determinando el régimen inicial del bien se efectuará al sujeto pasivo individualmente procediéndose, en su caso, a su incorporación al Padrón del impuesto como sujeto titular de un bien gravado por el recargo.

La consideración de un bien como objeto de recargo será notificada inicialmente al sujeto pasivo para que alegue lo que estime oportuno. El Ayuntamiento, a la vista de las alegaciones, dictará resolución definitiva sobre la aplicación o no del recargo, que será notificada al sujeto pasivo siguiendo los cauces legales oportunos.

EK\CV GAO-I-2024-09109

SALBUESPENAK

*4. artikulua.*

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak ezarritako salbuespenez gain, Ondasun Higiezinen zergatik salbuetsita deklaratzen dira partaidetza pribatuari interes orokorreko jarduieretan zerga pizgarriak emateari buruzko martxoaren 24ko 5/1995 Foru Arauaren 5. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituzten fundazio eta onura publikoa duten elkarteak.

HOBARIAK

*5. artikulua.*

Martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauko II. kapituluko bosgarren atalak aldatzen duen Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 15. artikuluan araututakoaren arabera, ondorengo hobariak onartzen dira:

a) Babes Ofizialeko etxebizitzak % 50eko hobaria, behin betiko kalifikazioa jaso eta hiru urteko epean.

b) Zerga-kuota osoaren % 50eko hobaria, baldin eta ondasun higiezinak obra berrien nahiz haiekin parekatzekoak diren zaharberritzekoen urbanizazio, eraikuntza eta higiezinen sustapeneko enpresek egiten duten jarduieraren xede badira eta haien ibilgetuaren artean ageri ez badira, beti ere obrak hasi aurretik interesatuek hala eskatzen badute.

c) Kuotaren % 50, energia aurrezteko sistemak instalatzen dituzten eraikinak, energia berriztagarrietatik datozenak, nahitaez bete beharreko indarreko araudian ezarritako mugak gainditzen dituztenak, hala nola Eraikuntzaren Kode Teknikoa. Hobaria obra egiten den hurrengo urtean aplikatuko da.

d) Zerga-kuota osoaren % 50eko hobaria etxebizitza hutsei buruz onartutako Bizigune edo antzeko programen barruan erabilera-lagapena dutenei.

KUDEAKETA ARAUAK

*6. artikulua.*

1. Zerga honen kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapena Gipuzkoako Foru Diputazioaren gain eskuorde daiteke, Udal Batzarrak erabakitako terminoetan, edukian eta eremuan, horretarako hitzarmen egokia izenpetuz.

2. Hartuko den udal erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN emango da argitara.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere eranskina, udalbatzak 2024ko urriaren 14ean onartu zuen eta 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

ERANSKINA

Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa:

— Hiritarra: % 0,1255.

— ndustriala: % 0,2688.

Landalur Ondasun Higiezinen gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa % 0,9707koa da.

EXENCIONES

*Artículo 4.*

Además de las exenciones establecidas en la Norma Foral 12/1989 de 5 de julio se declaran exentos de este impuesto las Fundaciones y Asociaciones declaradas de utilidad pública que cumplan los requisitos previstos en el artículo 5 de la Norma Foral 5/1995, de 24 de marzo, de incentivos fiscales a la participación privada en actividades de interés general.

BONIFICACIONES

*Artículo 5.*

De conformidad con el artículo 15 de la Norma Foral 12/1989 de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, modificado por el apartado cinco del capítulo II de la Norma Foral 4/2003 de 19 de marzo, se aprueban las siguientes bonificaciones:

a) El 50 % de la cuota, las viviendas de protección oficial, durante un plazo de 3 años contados desde el otorgamiento de la calificación definitiva.

b) El 50 % de la cuota integra del Impuesto para los inmuebles que constituyan el objeto de la actividad de las empresas de urbanización, construcción y promoción inmobiliaria tanto de obra nueva como de rehabilitación equiparable a ésta, y no figuren entre los bienes de su inmovilizado, siempre que así se solicite por los interesados antes del inicio de las obras.

c) El 50 % de la cuota, los edificios que instalen sistemas de ahorro de energía, procedentes de energías renovables, que superen los límites establecidos en la normativa vigente de obligado cumplimiento, como es el Código Técnico de la Edificación. La bonificación se aplicará en el año siguiente de ejecución de la obra.

d) El 50 % de la cuota, las viviendas vacías que se adhieran al programa Bizigune o similares.

NORMAS DE GESTIÓN

*Artículo 6.*

1. Las facultades de gestión, liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto, podrán delegarse en la Diputación Foral de Gipuzkoa, en los términos, contenido y alcance que el Ayuntamiento Pleno determine, suscribiendo al efecto el oportuno convenio.

2. El acuerdo municipal adoptado se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza junto con su anexo fue aprobada por el Pleno de la Corporación el 14 de octubre del 2024 y entrará en vigor el día 1 de enero de 2025 y permanecerá vigente hasta que se acuerde su modificación o derogación.

ANEXO

Tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Urbana:

— Urbana: 0,1255 %.

— Industrial: 0,2688 %.

El tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Rústica es de 0,9707 %.

EK\CV GAO-I-2024-09109

*1.2. Udalerriko jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordainarazteko zenbait ahalmen arautzen dituen Ordenantza Fiskala.*

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Udal honek koefizienteak eta indizeak finkatu ditu Ordenantza Fiskal honetan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratuari buruzko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 11. artikuluan aurreikusitako ahalmenak eta horri idazketa berria ematen dion, martxoaren 19ko Udal Zerga Sistema aldatzen duen 4/2003 Foru Araua erabilita.

GUTXIENEKO KUOTEN PONDERAZIOA

*2. artikulua.*

Udalerrian Zerga hau ezartzen zaien jardueretarako Foru Aldundiak zerga honen Tarifetan ezarri dituen gutxieneko kuotak, 1. eranskinean azaltzen den koefizientearen arabera gehituko dira.

*3. artikulua.*

Udalerrian zerga hau ezartzen zaien jarduerak gauzatzen diren lokalen kokapena ponderatzeko, aurreko artikuluaren arabera gehitutako kuotei, 2. eranskinean adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie, horretarako kontuan hartuta kokatuta dauden kalearen kategoria.

*4. artikulua.*

Gehikuntza koefizientea eta kokapen indizea, hurrenez hurren, ordenantza honen 2 eta 3 artikuluetan finkatzen direnak, ez zaizkie aplikatuko kuota probintzialei eta bereziei, ezta Foru Errekarguari ere.

*5. artikulua.*

Aurreko 3. artikuluan esandako indizeak aplikatzeko udalerriko kale, plaza edo auzoak sailkatu egiten dira 2. eranskinean zehaztutako kategorien arabera.

ZERGA - KUOTA

*6. artikulua.*

Zerga honen kuota Tarifek finkatzen dituzten gutxieneko kuotek osatuko dute. 2. artikuluko koefizientea eta 3. artikuluko indizea aplikatuta, eta hala behar balitz, baita Foru Errekargua ere.

Subjektu pasiboak ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu badu eta Udalak onartu badio ez da berandutza interesik exijituko. Onura hori lortzeko beharrezkoa izango da ordainketa zerga sortu den ekitaldian egitea.

KUDEAKETA ARAUAK

*7. artikulua.*

1. Zerga honen kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapena Gipuzkoako Foru Diputazioaren gain eskuorde daiteke, Udal Batzarrak erabakitako terminoetan, edukian eta eremuan, horretarako hitzarmen egokia izenpetuz.

2. Hartuko den udal erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN emango da argitara.

*1.2. Ordenanza Fiscal reguladora de determinadas facultades para la exacción del impuesto sobre actividades económicas en el municipio.*

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*

Este Ayuntamiento, haciendo uso de las facultades previstas en el art. 11 del Decreto Foral Normativo 1/1993, de 20 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas, y las modificaciones realizadas al mismo por la Norma Foral 4/2003 de 19 de marzo, de Reforma del Sistema de Tributación Local, fija los coeficientes e índices contenidos en esta Ordenanza Fiscal.

PONDERACIÓN DE CUOTAS MÍNIMAS

*Artículo 2.*

Las cuotas mínimas fijadas por la Diputación Foral en las Tarifas de este Impuesto para las actividades gravadas en este término municipal se incrementarán en el coeficiente que se indica en el anexo 1.

*Artículo 3.*

A efectos de ponderar la situación física de los locales o establecimientos donde se ejerzan las actividades gravadas por este Impuesto en el término municipal, se aplicará a las cuotas incrementadas conforme al artículo 2 anterior los índices de la escala que se indican en el anexo 2 en función de la categoría de la vía pública.

*Artículo 4.*

El coeficiente de incremento y el índice de situación fijados respectivamente en los artículos 2 y 3 de esta Ordenanza no se aplicarán a las cuotas provinciales y especiales ni al Recargo Foral.

*Artículo 5.*

Para la aplicación de los índices que hace referencia el artículo 3 anterior se clasifican las calles, plazas o barrios del término municipal por el orden de categorías que se relacionan en el anexo 2.

CUOTA TRIBUTARIA

*Artículo 6.*

La cuota tributaria de este Impuesto estará formada por las cuotas mínimas que fijen las Tarifas, incrementadas con el coeficiente y el índice que preceda según los artículos 2 y 3 d esta Ordenanza y del Recargo Foral en su caso.

No se exigirá interés de demora cuando, habiendo sido solicitado por el sujeto pasivo en período voluntario, el Ayuntamiento le haya concedido el aplazamiento o fraccionamiento de pago. Para la obtención de este beneficio será preciso que el pago del impuesto se produzca en el mismo ejercicio que el de su devengo.

NORMAS DE GESTIÓN

*Artículo 7.*

1. Las facultades de gestión, liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto, podrán delegarse en la Diputación Foral de Gipuzkoa, en los términos, contenido y alcance que el Ayuntamiento Pleno determine, suscribiendo al efecto el oportuno convenio.

2. El acuerdo municipal adoptado se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2024-09109

3. Artikulu honetan ezarritakoa horrela bada ere, Foru Aldundiarenak izango dira han adierazitako ahalmenak, kuota probintzial eta bereziei dagokienean.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere eranskina, udalbatzak 2024ko urriaren 14ean onartu zuen eta 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

1. ERANSKINA

Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra: % 1,4610.

2. ERANSKINA

UDALERRIKO BIDE PUBLIKOEN SAILKAPENA

Kategoria: bakarra.

Indizea: 1.

*1.3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga-kuotak finkatzeko elementuak erregulatzen dituen Ordenantza Fiskala.*

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Udal honek, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauko 4.4 artikulak ematen dion zilegidura erabiliz, artikulu horretako 1. atalean ezarritako gutxienezko kuotak finkatzen ditu eranskinean adierazten den koefizientea aplikatuz.

ZERGA KUOTA

*2. artikulua.*

Aurreko artikuluak aipatzen duen koefizientea aplikatuz, zerga hau eranskin horretan adierazten diren tarifa taularen arabera exijituko da.

IZAERA ETA ZERGAGAIA

*3. artikulua.*

1. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna zergapetzen duen zuzeneko tributua da, haien mota, kategoria, potentzia, edukiera eta karga edozein direla ere, eta zirkulazio baimenean ageri den helbidea Berastegiko udalerrian dagoenean exijitzen da.

2. Ibilgailua zirkulatzeko gai izango da bidezko erregistro publikoetan matrikulatua izan denean eta haietan oraindik baja emanda ez dagoenean. Aldi baterako baimena dutenak eta turismo matrikula daramatenak ere zirkulatzeko gai izango dira zerga honen ondorioetarako.

3. Ondoko hauek ez daude zerga honi lotuta:

a) Aspaldiko modeloak izateagatik erregistroetan baja emanda egon arren, kasu berezietan zirkulatzeko baimendu daitezkeenak haientzat antolatzen diren erakusketa, lehiaketa edo lasterketak direla eta.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak, hauen karga erabilgarria 750 kilogramotik gorakoa ez denean.

3. No obstante lo dispuesto en el número 1 de este artículo corresponderá en todo caso a la Diputación Foral las facultades en él expresadas por lo que se refiere a las cuotas provinciales y especiales.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza junto con su anexo fue aprobada por el Pleno de la Corporación el 14 de octubre del 2024 y entrará en vigor el día 1 de enero del 2025 y permanecerá vigente hasta que se acuerde su modificación o derogación.

ANEXO 1

Coeficiente único de incremento de las cuotas mínimas fijadas: 1,4610 %.

ANEXO 2

CLASIFICACIÓN DE LAS VÍAS PÚBLICAS DEL TÉRMINO MUNICIPAL

Categoría: única.

Índice: 1.

*1.3. Ordenanza Fiscal reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.*

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*

Este Ayuntamiento, haciendo uso de la autorización que confiere el artículo 4.4 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, fija las cuotas mínimas establecidas en el apartado 1 del citado artículo mediante aplicación del coeficiente que se expresa en el anexo.

CUOTA TRIBUTARIA

*Artículo 2.*

En aplicación del coeficiente que se refiere el artículo anterior, este Impuesto se exigirá con arreglo al cuadro de tarifas que se relaciona en el expresado anexo.

NATURALEZA Y HECHO IMPONIBLE

*Artículo 3.*

1. El Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica es un tributo directo que grava la titularidad de los vehículos de tracción mecánica, aptos para circular por las vías públicas, cualquiera que sea su clase, categoría, potencia, capacidad, y carga cuando conste en el permiso de circulación como domicilio el municipio de Berastegi.

2. Se considera vehículo apto para la circulación el que hubiere sido matriculado en los registros públicos correspondientes y mientras no haya causado baja en los mismos. A los efectos de este Impuesto también se considerarán aptos los vehículos provistos de permisos temporales y matrícula turística.

3. No están sujetos a este impuesto:

a) Los vehículos que habiendo sido dados de baja en los registros por antigüedad de su modelo, puedan ser autorizados para circular excepcionalmente con ocasión de exhibiciones, certámenes o carreras limitadas a los de esta naturaleza.

b) Los remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica cuya carga útil no sea superior a 750 kilogramos.

EK\CV GAO-I-2024-09109

SALBUESPENAK

*4. artikulua.*

Ondoko hauek daude Zergatik salbuetsita:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Udal Entitateen ibilgailu ofizialak, Defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.

b) Ordezkaritza diplomatikoen ibilgailuak, bulego kontsularrenak, eta atzerriko agente diplomatiko eta akreditatuta dauden karrerako funtzionario kontsularrenak, kanpoaldetik identifikatuta badaude eta beren mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada.

Baita ere, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten Nazioarteko Erakundeen ibilgailuak eta beren funtzionario edo kideenak, hauek estatutu diplomatikoa dutenean.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

d) Osasun laguntza emateko edo zauritu zein gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren anbulantziak eta gainerako ibilgailuak.

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, urriak 18ko 888/2022 Errege Dekretuak IV eranskinean aipaturiko ebaluazio baremoa aplikatuz lorturiko mugikortasun muga hartuko da erreferentzia moduan.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

e.1) Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa edo 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da urriak 18ko 888/2022 Errege Dekretuko IV. eranskineko Jardueren Gaitasunak/Mugak Ebaluatzeko Baremoa aplikatuz lorturiko mugikortasun mugaren ehunekoa % 25ekoa edo handiagoa bada, pertsonak mugikortasun murriztua eta garraio kolektiboak erabiltzeko mugitzeko zailtasunak dituela kontsideratuko da.

e.2) Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiago duten pertsonak.

Aurreko e.1) eta e.2) puntuetan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuaren egoeran badaude urriak 18ko 888/2022 Errege Dekretuak 4.eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gurpil aulkia eramateko egokituta badago.

Desgaitasunaren errekonozimendua 2023 urtea baino lehenagokoa bada, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuan 3. eranskinean jasotzen diren mugikortasun baremoko A, B eta C letrak eta 7 puntu edo gehiago izateak mugikortasun murriztua bezala kontsideratuko da.

f) Uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikuluko 2. puntuari azken paragrafoa erantsi zaio bukaeran, eta honela geratu da idatzia:

e) apartaduaren arabera minusbaliotasuna duen pertsonaren bat ardurapean duten pertsonek Udalaren aurrean egiaztatu behar dute minusbaliotasun maila eta minusbaliotasuna duen pertsonarekiko duten harremana.

EXENCIONES

*Artículo 4.*

Estarán exentos del Impuesto:

a) Los vehículos oficiales del Estado, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de las Entidades Municipales guipuzcoanas, adscritos a la Defensa o a la seguridad ciudadana.

b) Los vehículos de representaciones diplomáticas, oficinas consulares, agentes diplomáticos y funcionarios consulares de carrera acreditados, que sean súbditos de los respectivos países, externamente identificados y a condición de reciprocidad en su extensión y grado.

Asimismo, los vehículos de los Organismos Internacionales con sede u oficina en el Estado Español y de sus funcionarios o miembros con estatuto diplomático.

c) Los vehículos respecto de los cuales así se derive de lo dispuesto en tratados o convenios internacionales.

d) Las ambulancias y demás vehículos directamente destinados a la asistencia sanitaria o al traslado de heridos o enfermos.

e) Los vehículos matriculados a nombre de las personas con movilidad reducida a la que hace referencia el anexo IV aprobado por Real Decreto 888/2022, de 18 de octubre.

Asimismo, están exentos los vehículos de menos 14 caballos fiscales, matriculados a nombre de personas con discapacidad para su uso exclusivo. Esta exención se aplicará en tanto a los vehículos conducidos por personas con discapacidad como a los destinados a su transporte.

Las exenciones previstas en los dos párrafos anteriores no resultarán aplicables a los sujetos pasivos beneficiarios de las mismas por más de un vehículo simultáneamente.

A los efectos de los dispuesto en esta letra, se considerarán personas con discapacidad las siguientes:

e.1) Aquellas personas que tengan reconocido un grado de minusvalía igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100 que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose como tal, las incluidas en el anexo IV del Real Decreto 888/2022 de 18 de octubre, sobre el Baremo de evaluación de las capacidades/Limitaciones en la Actividad. Se determinará que la persona tiene Movilidad reducida y Dificultades de movilidad para utilizar transportes colectivos cuando el porcentaje de limitación obtenido en el dominio de movilidad asigne una limitación final de movilidad igual o superior al 25 %.

e.2) Aquellas personas con un grado de minusvalía igual o superior al 65 por 100.

A las personas incluidas en los apartados e.1) y e.2) anteriores que se encuentren en situación carencial de movilidad reducida calificada en el anexo 4 del Real Decreto 888/2022 de 18 de octubre, no les será de aplicación el límite de 14 caballos fiscales, siempre que el vehículo se encuentre adaptado para el uso con silla de ruedas.

En caso de que el reconocimiento de Discapacidad sea anterior al año 2023, se entenderá que se encuentra en estado carencial de movilidad reducida, las incluidas en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B o C y/o los que obtengan 7 o más puntos citados en el anexo 3 del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre,

f) Se adiciona un último párrafo al punto 2 del artículo 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, que quedará redactado de la siguiente manera:

Los titulares de vehículos de personas con minusvalías a su cargo en los términos expuestos en el apartado e), deberán acreditar ante el Ayuntamiento el grado de minusvalía y la relación con la persona con minusvalía.

g) Udalaren emakida administratibo bidez herri garraio zerbitzuari atxikita dauden autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, horien plaza kopurua, gidariarena barne, bederatzitik gorakoa denean.

h) Traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makineria, Nekazaritzako Makineria inskiribatzeko Kartilaz hornituta daudenean.

Artikulu honen e) eta h) letretan aipatzen diren salbuespenez gozatu alhal izateko, interesatuek eskaera aurkeztu beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazio honek salbuespena onartu ondoren, agiri bat luzatuko du hura eman dela frogatzeko.

Aurreko atalean jasotakoaren ondorioetarako, ibilgailuen titularrek udalerri honetan egon beharko dute erroldatuta, eta zergaz salbuesteko eskaera udaletxeko Erregistro Orokorrean idatziz aurkeztu. Eskaerari honako agiriak erantsiko dizkiote:

1. Ibilgailuak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat direnean edo minusbaliatuen izenean eta horiek bakarrik erabiltzeko matrikulatuta daudenean:

— Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia.

— Ibilgailuaren Ezaugarri Teknikoen Ziurtagiriaren fotokopia.

— Gizartekintzak edo bere ordez dihardùen Erakunde edo Agintari dministratiboak luzatutako ziurtagiri originala.

2. Traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta nekazaritzako makinak badira:

— Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia.

— Ibilgailuaren Ezaugarri Teknikoen Ziurtagiriaren fotokopia.

— Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartilaren fotokopia edo, bestela, Gipuzkoa Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Nekazaritzako Makineriaren Erroldan alta hartu izanaren frogagria, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean luzatua.

ZERGAREN KUDEAKETA

*5. artikulua.*

1. Zerga hau autolikidazio erregimenean exijituko da, horretarako Udal Administrazioak zerga honen subjektu pasiboei eta espedienteak izapidatzen dituzten gestoriei emango dien ereduan.

2. Zergaren ordainketa autolikidazioa aurkeztuko den unean egingo da.

*6. artikulua.*

1. Zerga honen zorraren ordainketa eguneratuta daukala egiaztatuko duen ziurtagiriaren aurkezpena ezinbesteko baldintza izango da ondorengo espedienteak izapidatzeko eskaerari Trafiko Buruzagitzan hasiera emateko:

— Zirkulatzeko ibilgailuaren gaitasun ziurtapenarena.

— Ibilgailuen behin betiko bajarena.

— Ibilgailuen erreformarena, zerga honen ondorioetarako haien sailkapena aldatzen denean.

— Ibilgailuaren transferentziarena.

— Ibilgailuaren zirkulazio baimenean azaltzen den subjektu pasiboaren bizileku aldaketarena.

2. Kuota korronteen ordainketa egiaztatuko duen ordainagiriaren aurkezpena ezinbesteko betebeharra izango da, hori aurkeztea eskatzen duten zergapeko ibilgailuen matrikulazio espedienteari hasiera emateko Trafiko Buruzagitzan.

g) Los autobuses, microbuses y demás vehículos destinados a adscritos al servicio de transporte público en régimen de concesión administrativa otorgada por este Municipio, siempre que tengan una capacidad que exceda de nueve plazas, incluida la del conductor.

h) Los tractores, remolques, semirremolques y maquinaria provistos de Cartilla de Inscripción de Maquinaria Agrícola.

Para poder gozar de las exenciones a que se refieren las letras e) y h) del presente artículo, los interesados deberán instar su solicitud, indicando las características del vehículo, su matrícula y causa del beneficio. Declarada ésta por esta Administración Municipal se expedirá un documento que acredite su concesión.

A los efectos previstos en el apartado precedente, los titulares de los vehículos, deberán figurar empadronados en este municipio, solicitarán la exención del impuesto por escrito en el Registro General de este Ayuntamiento, acompañando a la petición escrita los siguientes documentos:

1. En el supuesto de vehículos para personas con movilidad reducida o matriculados a nombre de minusválidos para su uso exclusivo:

— Fotocopia del Permiso de Circulación del vehículo.

— Fotocopia del Certificado de características técnicas del vehículo.

— Original del Certificado emitido por Gizartekintza u Organismo o Autoridad Administrativa que le sustituya.

2. En el supuesto de los tractores, remolques, semirremolques y maquinaria agrícola:

— Fotocopia del Permiso de Circulación del vehículo.

— Fotocopia del Certificado de características técnicas del vehículo.

— Fotocopia de Cartilla de Inscripción de Maquinaria Agrícola, o documento acreditativo del alta en el Registro Oficial de Maquinaria Agrícola del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa, expedida necesariamente a nombre del titular del vehículo.

GESTIÓN DEL IMPUESTO

*Artículo 5.*

1. Este impuesto se exigirá en régimen de autoliquidación en el modelo que al efecto se facilitará por la Administración Municipal a los sujetos pasivos de este Impuesto y a las gestorías que tramiten los correspondientes expedientes.

2. El pago del Impuesto se efectuará en el momento de la presentación de la autoliquidación.

*Artículo 6.*

1. La presentación del certificado acreditativo de estar al corriente del pago de la deuda tributaria de este Impuesto, es requisito indispensable para iniciar en la Jefatura de Tráfico la solicitud de tramitación de los expedientes sobre:

— La certificación de aptitud del vehículo para circular.

— La baja definitiva del vehículo.

— La reforma de los mismos, siempre que altere su clasificación o efectos de este Impuesto.

— La transferencia del vehículo.

— El cambio de domicilio del sujeto pasivo del que figure en el permiso de circulación del vehículo.

2. La presentación del recibo acreditativo del pago de las cuotas corrientes, será requisito indispensable para iniciar el expediente de matriculación en la Jefatura de Tráfico de los vehículos sujetos al Impuesto que requieran tal requisito.

EK\CV GAO-I-2024-09109

KUOTEN ITZULKETA

*7. artikulua.*

Ibilgailuaren behin betiko baja emango litzatekeen kasuan, subjektu pasiboaren alde izango diren kuota proportzionalak, era berean behin-behineko likidazioan soberan ordaindutakoak, zergaren subjektu pasiboei itzuliko zaizkie behin betiko baja eta ibilgailuaren matrikulazioari buruzko dokumentazioa aurkezteko unean.

AZKEN XEDAPENA

*8. artikulua.*

Ordenantza hau eta bere eranskina, udalbatzak 2024ko urriaren 14ean onartu zuen eta 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

ERANSKINA

TARIFAK

| *Ibilgailuen potentzia eta mota* | *Koefizientea* |
|---|---|
| A) Turismoak. | |
| 9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak | 30,85 |
| 9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak | 61,71 |
| 12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak | 102,84 |
| 14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak | 143,98 |
| 16tik 19,99 zaldi fiskaletik bitartekoak | 185,12 |
| 20 zaldi fiskaletik gorakoak | 226,25 |
| B) Autobusak. | |
| 21 plaza baino gutxiagokoak | 142,53 |
| 21etik 50 plazatara bitartekoak | 203,00 |
| 50 plaza baino gehiagokoak | 253,76 |
| C) Kamioiak. | |
| Karga erabilgarriko 1.000 kg baino gutxiago | 72,35 |
| Karga erabilgarriko 1.000tik 2.999 kg-ra | 142,53 |
| Karga erabilgarriko 2.999tik 9.999 kg-ra | 203,00 |
| Karga erabilgarriko 9.999 kg. baino gehiagokoak | 253,76 |
| D) Traktoreak. | |
| 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak | 30,24 |
| 16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak | 47,52 |
| 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak | 142,53 |
| E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek arrastan eramandako atoi eta erdi atoiak. | |
| Karga erabilgarriko 1.000 kg baino gutxiago eta 750 baino gehiago | 30,24 |
| Karga erabilgarriko 1.000tik 2.999 kg bitartean | 47,52 |
| Karga erabilgarriko 2.999 kg-tik gorakoak | 142,53 |
| F) Bestelako ibilgailuak. | |
| Ziklomotoreak | 7,57 |
| 125 z.k.-rainoko motozikletak | 7,57 |
| 125tik 250 z.k.-rainoko motozikletak | 12,95 |
| 250tik 500 z.k.-rainoko motozikletak | 25,92 |
| 500tik 1.000 z.k.-rainoko motozikletak | 51,84 |
| 1.000 z.k.tik goragoko motozikletak | 103,67 |

DEVOLUCIÓN DE CUOTAS

*Artículo 7.*

Las cuotas proporcionales que resulten a favor del sujeto pasivo, en el supuesto de baja definitiva del vehículo, así como los excesos abonados en su caso en la liquidación provisional, serán devueltos a los sujetos pasivos del Impuesto en el momento de la presentación de la documentación relativa a la baja definitiva y a la matriculación del vehículo.

DISPOSICIÓN FINAL

*Artículo 8.*

La presente Ordenanza junto con su anexo fue aprobada por el Pleno de la Corporación el 14 de octubre del 2024 y entrará en vigor el día 1 de enero del 2025 y permanecerá vigente hasta que se acuerde su modificación o derogación.

ANEXO

TARIFAS

| *Potencia y clase de vehículo* | *Coeficiente* |
|---|---|
| A) Turismos. | |
| De menos de 9 caballos fiscales | 30,85 |
| De 9 hasta 11,99 caballos fiscales | 61,71 |
| De 12 hasta 13,99 caballos fiscales | 102,84 |
| De 14 hasta 15,99 caballos fiscales | 143,98 |
| De 16 hasta 19,99 caballos fiscales | 185,12 |
| De 20 caballos fiscales en adelante | 226,25 |
| B) Autobuses. | |
| De menos de 21 plazas | 142,53 |
| De 21 a 50 plazas | 203,00 |
| De más de 50 plazas | 253,76 |
| C) Camiones. | |
| De menos de 1.000 kg de carga útil | 72,35 |
| De 1.000 a 2.999 kg de carga útil | 142,53 |
| De 2.999 a 9.999 kg de carga útil | 203,00 |
| De más de 9.999 kg de carga útil | 253,76 |
| D) Tractores. | |
| De menos de 16 caballos fiscales | 30,24 |
| De 16 a 25 caballos fiscales | 47,52 |
| De más de 25 caballos fiscales | 142,53 |
| E) Remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica. | |
| De menos de 1.000 y más de 750 kg de carga útil | 30,24 |
| De 1.000 a 2.999 kg de carga útil | 47,52 |
| De más de 2.999 kg de carga útil | 142,53 |
| F) Otros vehículos. | |
| Ciclomotores | 7,57 |
| Motocicletas hasta 125 cc | 7,57 |
| Motocicletas de más de 125 hasta 250 cc | 12,95 |
| Motocicletas de más de 250 hasta 500 cc | 25,92 |
| Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 cc | 51,84 |
| Motocicletas de más de 1.000 cc | 103,67 |

EK\CV GAO-I-2024-09109

*1.4. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.*

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak erregulatzen dituen Foru Arauen nahiz tributu hau bereziki arautzen duen Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga ezarri eta exijituko du Ordenantza honi jarriki. Aplikatuko diren tarifak jasotzen dituen eranskina ere Ordenantza honen zati izango da.

*2. artikulua.*

Ordenantza hau udal barruti osoan aplikatzekoa da.

ZERGAGAIA

*3. artikulua.*

Udalak eman beharreko hirigintza baimena behar duen edozein eraikuntza, obra edo instalazio egiteari tokatzen zaio zerga hau; eta berdin izango dio baimena aterata izan edo atera gabe izan.

*4. artikulua.*

Honakook izango dira, banan banan adierazitza, zerga hau ezartzea tokatzen zaien ekintzak:

